



TXORIERRIKO MANKOMUNITATEA

TXORIERRIKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA

BERDINTASUN SAILA

2014ko JARDUEREN MEMORIA

AURKIBIDEA

1. AURKEZPENA	2
2. ZERBITZUAREN EGITEKOAK	3
2.1 KOORDINAZIO-LANA	3
➤ ERAKUNDE PUBLIKOAK	
➤ MANKOMUNITATEAREN ZERBITZUAK	
➤ UDALAK	
➤ HEZKUNTZA	
➤ ENPRESAK	
➤ ELKARTEAK	
➤ KOMUNIKABIDEAK	
2.2 BESTE EGITEKO BATZUK	6
➤ HEDAPENA	
➤ HERRITARRENTZAKO ARRETA	
➤ GIZARTE ZERBITZUEN BATZORDEA	
➤ PRESTAKUNTZA	
➤ DIRU-LAGUNTZAK	
3. PROGRAMAK	8
4. DIRU-LAGUNTZAK	17
5. UDAL BAKOITZEAN EGINDAKO LANAREN LABURPENA	17

1. ZERBITZUAREN AURKEZPENA

Berdintasun Zerbitzuaren betebeharrak nagusia Udalei gai honi buruzko laguntza teknikoa ematea da. Zerbitzu honen helburua emakumezko eta gizonezkoen arteko harremanak aldatzea da. Horretarako, bai emakumezko eta gizonezkoen arteko desberdintasun eta diskriminazio egoerak zuzentzeko eta konpentsatzeko, bai genero-gizarteratzearen ondorioei aurre egiteko, bai berdintasunezko gizarte-eredu bat bermatzeko balio izango duten programak, planak eta proiektuak bultzatzen ditu.

Beste sailetan ez bezala, Berdintasun Sailak bi mailatan egiten du lan Mankomunitateak: haraneko udalerri edo herritar guztientzat antolatutako **jarduketa komunen bitartez** eta Udal bakoitzak bere herritarrentzat antolatutako **jarduketa espezifikoen bitartez**. Bigarren kasu horretan, Mankomunitateko berdintasun-teknikariak laguntza teknikoa eskaintzen die udalerri bakoitzeko Berdintasun Unitateei.

2. BERDINTASUN-ZERBITZUAREN EGITEKOAK

Zerbitzu hau existitzearen helburua da Txorierriko emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreal eta eraginkorra lortzea, generoa zeharka landuz. Kontzeptu horrek erreferentzia egiten dio politika publikoetan emakumeen eta gizonen Tratu Berdinaren eta Aukera Berdinen printzipioa aplikatzeari; horrek esan nahi du bermatu egingo dela baliabide guztiak eskuratzeko aukera-berdintasuna dagoela, politika publikoak diseinatzerakoan egun existitzen diren desberdintasunak aintzat hartzen direla eta politika horiek aurrez aipaturiko berdintasun erreal eta eraginkor hori lortzeko izan dituzten emaitzak eta eragina identifikatzen eta ebaluatzen dela.

2.1. KOORDINAZIOA

ERAKUNDE PUBLIKOAK

- Bizkaiko Foru Aldundia

Etengabe dihardugu elkarlanean Aldundiarekin; izan ere, erakunde horrek diruz laguntzen ditu berdintasunaren arloan Udalek egiten dituzten hainbat ekintza. Derio salbuespena da; izan ere, 5.000 biztanletik gora dituenek, ez du Aldundiaren diru-laguntza hori jasotzen.

Bestalde, BERDINBIDEAN BIZKAIA proiektua dugu. Proiektu horrek berdintasunaren alde lan egiten du Lezaman eta Zamudion; hori dela eta, beharrezkoa da erakunde horrekin harreman estuagoa izatea.

- EMAKUNDE

Emakumearen Erakundea oinarrizkoa da EAEn berdintasuna lortu ahal izateko, eta lankidetzaz funtsezkoa da sailak behar bezala funtziona dezan.

➤ EUDEL

Larrabetzu izan ezik, gainerako udalerri guztiak BERDINSAREA izenekoaren kide dira. BERDINSAREA euskal udalerrien sare bat da eta berdintasunaren alde lan egiten du. Hori dela eta, ezinbestekoa da EUDELekin eta sareko kide diren gainerako udalerriekin lankidetzan aritzea.

MANKOMUNITATEAREN BESTE ZERBITZU BATZUK

Berdintasuna Mankomunitateko sail guztietan zeharka landu ahal izateko, egunez egun elkarlanean aritzen gara Gazteria, Esku-hartze Komunitario eta Euskara sailletako teknikariek.

UDALAK

Zerbitzu honek behar bezala funtziona dezan, ezinbestekoa da lankidetzan aritzea udal guztietako Kultura Sailekin; hori dela eta, hilean behin sail horretako ordezkari guztiok bildu egiten gara Gazteria, Euskara, Esku-hartze Komunitario eta Berdintasun sailletako ordezkariekin.

Ekintzak abiatzeko, ezinbestekoa da, halaber gazteguneeetako, gaztelekuetako eta ludoteketako begiraleekin harremanetan egotea.

HEZKUNTZA

Martxoaren 8ko eta azaroaren 25eko kanpainen, ohikoa da eskola publikoetara ekintzak eramatea; horretarako, ezinbestekoa da ikastetxe horietako zuzendaritzekin elkarlanean jardutea.

Kanpaina horietan, HHlan ere abiatzen dira ekimenak; horretarako, funtsezkoa da ikastetxeko zuzendaritza-taldearekin batera lan egitea.

Politeknika Ikastegia Txorierrerekin ere harreman estua dugu; izan ere, urtero antolatzen da bizikidetzarekin eta berdintasunarekin erlazionaturiko jarduera bat.

ENPRESAK

Enpresa hauekin egiten dugu lan batez ere: WOM COMUNICACIÓN, ORTZADAR, ESHE, MURGIBE, SORTZEN, LANTEGI BATUAK.

ELKARTEAK

Mankomunitatea osatzen duten hainbat udalerrik emakume-elkarteak dituzte; Berdintasun Saila haiekin harreman etengabea eta lankidetzaz jarraitua izaten saiatzen da.

KOMUNIKABIDEAK

Funtsean, Berdintasun Saila bi komunikabiderekin aritzen da elkarlanean: AIKOR eta DEIA.

2.2. BESTE FUNTZIO BATZUK

HEDAPENA

Udalerrietako kultur agendak eta webguneak erabiltzen dira batez ere Berdintasun Sailak antolatzen dituen jarduerak ezagutzera emateko.

Horrez gain, kartelak jarri, diptikoak postontzietan sartu eta sare sozialak ere erabiltzen dira.

HERRITARRENTZAKO ARRETA

Ohikoa izaten da emakumeak Berdintasun Sailera etortzea genero-indarkeriari buruzko aholkularitza bila. Orain arte, eskura dituzten baliabideen berri eman diegu eta kasu zehatzagoetan, esaterako, indarkeria jasaten ari den alaba adingabe bat dutenen kasuan, zer egin azaldu diegu.

GIZARTE ZERBITZUEN BATZORDEA

Hilean behin, Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuen Batzordean aurkezten dira Berdintasun Sailean antolatzen diren programak eta ekintzak.

PRESTAKUNTZA

Maiatzaren 23an eta 30ean, Berdintasun Saileko arduraduna EMAKUNDEK eskainitako prestakuntza-saio batean izan zen; prestakuntza kontratazio publikoan genero-ikuspegia txertatzeari buruzkoa izan zen.

3. PROGRAMAK

JARDUERAREN IZENA

1.- BERDINTASUNEZKO ELKARBIZITZA LORTZEKO TAILERRA POLITEKNIKAN

1.- Jardueraren esparrua

Jarduera hau Politeknika Txorierriko ikasleei zuzenduta dago.

2.- Jardueraren helburuak

Honako hauek dira helburu nagusiak:

- Politeknika Txorierriko nerabeen artean elkarrizketa sustatzea eta berdinen arteko indarkerian zein genero-indarkerian eragiten duten mekanismoei buruz hitz egitea.
- Pertsonen arteko harremanek oinarri izan behar dituzten funtsezko balioen eraikuntzari ekarpena egitea: berdintasuna, autonomia, aukeratzeko askatasuna, gatazken ebazpen baketsua...
- Jardunbide onak sustatzea berdintasunean, indarkeriaren prebentzian eta kulturarteko hezkuntzan hezteko.

3.- Jardueraren deskribapena

Hiru orduko saio bana egin da talde bakoitzarekin. Saio horiek dinamikoak eta parte-hartzaileak izan dira, eta alderdi hauek landu dira:

- Berdintasunari buruzko oinarrizko kontzeptuak
- Gai horri buruzko aurreiritziak
- Gatazkek indarkeriarik erabili gabe konpontzeko bideak
- Hitzarmenak eta negoziazioak

4.- Ebaluazioa

Oso eztabaida interesgarriak eta aberasgarriak agertu dira eta bizikidetzak hobetzeko hainbat proposamen bildu dira. Ikasleak sentsibilizatu egin dira indarkeria matxistaren kausei eta ondorioei buruz, jardunbide onak sustatu dira, etab. Hori dela eta, esan daiteke programaren helburuak behar bezala erdietsi direla.

5.- Aurrekontua

MURGIBE aholkularitza-enpresa kontratatu da, eta jardueraren kostua 1.440 eurokoa izan da. Eusko Jaurlaritzak 578,01 € eman ditu.

6.- Hartzaileak

Diziplina hauetako Politeknikako ikasleak:

Fabrikazio Mekanikoko Diseinua, 1. maila

Salmenten eta Merkataritza Esparruen Kudeaketa, 1. maila

Automatizazioa eta Robotika Industrialak, 1. maila

Telekomunikazioak, 1. maila

Ingurumen Hezkuntza eta Kontrola, 1. maila

Produktzioaren Programazioa, 1. maila

Mekanizazioa, 2. maila

Guztira 114 pertsonak hartu dute parte; horietatik % 85 mutilak ziren, eta % 15 neskak.

7.- Hobetzeko proposamenak

Parte hartu duten eragile guztiek programaren balorazio positiboa egin dute; hala ere, agian interesgarria litzateke gaia sakonago lantzea ikastetxeko ikasleekin.

JARDUERAREN IZENA

2.- BERDINTASUNARI BURUZKO TAILERRA HHIn

1.- Jardueraren esparrua

HHko ikasleei zuzenduriko jarduera bat da. Ekintza boluntarioa da, eta ez eskola-orduetan egiteko ekintza bat.

2.- Jardueraren helburuak

Bi orduko ikastaro honen helburua da bertaratutako pertsonen eta emakumeen arteko berdintasunaren funtsezko oinarriak ezagutaraztea. Ikasleak sentibilizatu nahi dira eta pertsona gisa garatzen lagunduko dien prestakuntza teorikoa zein praktikoa eskaini nahi zaie. Horrez gain, animatu nahi izan dira berdintasun erreala lortzeko bidean gizarteak eman behar dituen urratsei ekarpena egin diezaioten.

Parte-hartzaileek kontzientzia har dezaten lortu nahi da, eta desberdintasunak eta diskriminazioak gainditzeko beharraz konturagaraztea; horrela, gai izango gara emakumeentzat, bai eta gizonentzat ere, hobe den gizarte bat eraikitzeko.

3.- Jardueraren deskribapena

Dinamika parte-hartzaile baten bitartez, honako alderdi hauek landu dira:

- Berdintasuna
- Sexua eta generoa
- Sozializatzeko modua: desberdintasunean hazten gara
- Genero-rolak eta estereotipoak: publikoa eta pribatua
- "Gizarteak aldatu egin da"... egia ala fikzioa? (bideoa: "Aitak")
- Zer gertatzen da, beraz, berdintasunarekin?
- Gizonek ere berdintasunaren alde lan egiten dute

- Aldaketa eragiteko ideia batzuk. Zer egin dezakegu?

4.- Ebaluazioa

Hala gizonek nola emakumeek interes handia erakutsi dute, eta ikastaroari harrera ona egin diote. Ikasleek aktiboki parte hartu dute aurkeztutako dinamiketan; hori dela eta oso eztabaida interesgarriak egon dira berdintasunari eta emakume zein gizonek gizartean duten egoerari buruz.

Parte-hartzaileen adinak askotarikoak ziren arren, adostasun handia lortu da aurkeztutako gaien analisian, batez ere rol eta estereotipo sexistei dagokienez, bai eta berdintasuna lortzeko lanak norberarengandik hastearen garrantziari dagokionez ere.

Azpimarratu beharra dago bertaratzea boluntarioa izan arren, pertsona ugari parte hartu dutela ikastaroan, eta hori oso positiboa da.

5.- Aurrekontua

XARLINGOA enpresa kontratatu da, eta jarduerak 230 euro balio izan du.

6.- Hartzaileak

HHIko ikasleak

Bertaratuak: 32 pertsona; 5 gizon eta 27 emakume.

Adina: batez ere 50 urtetik gorako emakumeek hartu dute parte; horrez gain, 20-25 urteko bi gizonek, 55 urtetik gorako bi gizonek eta 40-45 urte arteko gizon batek ere parte hartu dute. Horrez gain, 20-25 urte arteko bi emakumek eta 30-45 arteko emakumeek ere parte hartu zuten.

7.- Hobetzeko proposamenak

2015. urteari begira, komenigarria litzateke azaroaren 25eko kanpainaren inguruan ere lan egitea, eta ez soilik martxoaren 8ko kanpainaren inguruan.

JARDUERAREN IZENA

3.- HEZKIDETZARI BURUZKO GIDA DISEINATZEA ETA MAKETATZEA

1.- Jardueraren esparrua

Hezkidetzari buruzko gida da jarduera honen oinarria.

2.- Jardueraren helburuak

Helburua zen gidari formatu erakargarria ematea, irakurketa errazteko.

3.- Jardueraren deskribapena

WOM enpresa kontratatu da, eta enpresa hori arduratu da gida diseinatzeaz eta maketatzeaz.

4.- Ebaluazioa

Diseinu erakargarriari esker, gidak irakurtzeko gogoia ematen duen formatua izatea lortu da.

5.- Aurrekontua

2.420 €-ko kostua izan du.

6.- Hartzaileak

Txorierriko udalerrri guztietako familia eta pertsona interesdunak.

7.- Hobetzeko proposamenak

Gidaren diseinua oso egokitzat jo da, eta ez da horri buruzko hobekuntza-proposamenik egin.

JARDUERAREN IZENA

4.- PUNTU MOREAREN BINILOAK INPRIMATZEA ETA BANATZEA

1.- Jardueraren esparrua

Sentsibilizazio-jarduera bat da.

2.- Jardueraren helburuak

Herritar guztiak sentsibilizatzea emakumeenganako indarkeria matxistaren aurka, eta saltokiak, tabernak eta jatetxeak inplikatzeko indarkeria horren kontrako borrokan.

3.- Jardueraren deskribapena

WOM enpresa kontratatu da guztira 1.000 binilo inprimatzeko. Binilo horiek Txorierriko udalerrietako saltokietan, tabernetan eta jatetxeetan banatu dira.

LANTEGI BATUAK arduratu da biniloak banatzeaz.

4.- Ebaluazioa

Jarduera positiboa izan dela uste da, eta herritarrek oso harrera ona egin diote.

5.- Aurrekontua

Biniloak inprimatzeak 562,65 € balio izan du.

Biniloak banatzeak 759,88 € balio izan du.

6.- Hartzaileak

Txorierriko udalerrri guztietako tabernak, jatetxeak eta saltokiak.

7.- Hobetzeko proposamenak

Pertsona askok euren etxeetan jartzeko biniloak eskatu dizkigute; agian proposatu beharko litzateke etxeetan ere biniloak banatzea.

JARDUERAREN IZENA

5.- INSTITUTUAN SEXU-INDARKERIA PREBENITZEKO TAILERRA

1.- Jardueraren esparrua

Institutuko DBH 3ko ikasleak eta irakasleak sentsibilizatzeko jarduera bat da.

2.- Jardueraren helburuak

Honako hauek dira jardueraren helburuak:

- Sozializatzeko prozesuak eta horiek nortasuna eraikitzeke orduan duten eragina identifikatzea.
- Identitatea eraikitzeke orduan eta harreman afektiboetan dauden mito, estereotipo eta uste faltsuen inguruan kontzientzia hartzea.
- Errespetuan eta berdintasunean oinarritutako harremanak identifikatzea eta sustatzea.
- Galdera hauei buruzko ezagutza areagotzea: sexu-indarkeria zer den, zergatik gertatzen den, zer egin behar den eta non lortu daitekeen laguntza.

3.- Jardueraren deskribapena

Tailerrak, guztira, 6 ordu iraungo du talde bakoitzarekin; hala, bina orduko 3 saio egingo dira DBH 3ko talde bakoitzarekin, bai eta bi orduko saio bat ere irakasleekin.

4.- Ebaluazioa

Jardueran parte hartu duten guztiek balorazio positiboa egin dute.

5.- Aurrekontua

Jardueraren kostua 2.2669 €-koa izan da, eta Aldundiak 1.607,20 €-ko diru-laguntza eman du.

6.- Hartzaileak

Institutuko DBH 3ko ikasleak eta irakasleak sentibilizatzeko jarduera bat da.

7.- Hobetzeko proposamenak

Etorkizunean, pentsatu beharko genuke antzeko tailer bat egitea DBHko 1., 2. eta 4. mailako ikasleekin.

4. DIRU-LAGUNTZAK

2014an, Eusko Jaurlaritzak 701,74 €-ko diru-laguntza eman du Politeknikan bizikidetzari eta berdintasunari buruzko tailer bat egiteko.

Horrez gain, Aldundiak 1.120,80 €-ko diru-laguntza eman du urtero institutuan egiten den indarkeria prebenitzeari buruzko tailerra antolatzeko.

5. UDAL BAKOITZAK EGINDAKO JARDUEREN LABURPENA

Mankomunitateak herritar guztiei zuzenduriko jarduerak antolatzen ditu, eta udalek ere gauza bera egiten dute, bakoitzak bere udalerrian. Hona hemen udalek egindako ekintzak:

LOIU

2014. urtean, Loiun honako jarduera hauek antolatu dira:

- Martxoaren 8ko kanpaina
- Emakumeentzako barreterapia tailerra
- Zahartze positiboari buruzko hitzaldia
- Azaroaren 25eko kanpaina

SONDIKA

2014. urtean, Sondikan honako jarduera hauek antolatu dira:

- Martxoaren 8ko kanpaina
- Emakumeentzako barreterapia tailerra
- Azaroaren 25eko kanpaina

DERIO

2014. urtean, Derion honako jarduera hauek antolatu dira:

- Kirolari, emakumeari eta elikadurari buruzko bi hitzaldi
- Martxoaren 8ko kanpaina
- Azaroaren 25eko kanpaina
- BEITUko langileentzako prestakuntza

ZAMUDIO

2014. urtean, Zamudion honako jarduera hauek antolatu dira:

- Udalerriaren hirigintza-diagnostikoa, genero-ikuspegitik
- Martxoaren 8ko kanpaina
- Azaroaren 25eko kanpaina

LEZAMA

2014. urtean, Lezaman honako jarduera hauek antolatu dira:

- Ludotekako urteko programa
- Gazteguneko urteko programa
- Gaztelekuko urteko programa
- Sare sozialei buruzko tailerra
- Barreterapia tailerra
- Martxoaren 8ko kanpaina
- Azaroaren 25eko kanpaina

LARRABETZU

2014. urtean, larrabetzun honako jarduera hauek antolatu dira:

- Hezkidetza-programa eskolan
- Martxoaren 8ko kanpaina
- Barreterapia tailerra
- Pelbis-zorua indartzeari buruzko hitzaldi-tailerra
- Azaroaren 25eko kanpaina